

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Nor, nolakoa, zer zara zu?



#### - Nolakoa zara zu?

- Denok gara bereziak, denok pertsonak gara

#### Helburuak

- Pertsonak deskribatzen ikastea.
- Pertsonen arteko errespetua lantzea.
- Norberaren burua maitatzen ikastea.

#### Prozedura

- Umeei “denok gara bereziak, denok pertsonak gara” fitxa-multzo bana eman.
- Joxek bidali duela esan.
- Hezitzaileak dokumentua poliki eta intonazio egokia emanaz irakurri. Dokumentuak argi bideratuko du hezitzailea.
- Umeek fitxetan eskatzen diren lanak bete:
  - **Ispiluan begiratu:** ume guztiek ispiluan begiratu euren buruari (aluminiozko paperean), hezitzaileak zer ikusi duten galdetu, gelako beste kide guztiei begiratzeko esan; badago gelan itxura berbera duen lagunik?
  - **Gelakoen ile koloreak aztertu:** galderei erantzun; hezitzaileak, arbelean, gelakoen ile koloreak eta kolore bakoitzeko kopurua idatzi.
  - **Maskara margotu eta moztu:** ume bakoitzak bere maskara margotu eta moztu.
  - **Ispiluan begiratu:** zein koloreko begiak dituzten ikusi eta fitxan jarri.
  - **Gelakoen begi koloreak aztertu:** hezitzaileak, arbelean, gelakoen begi koloreak eta kolore bakoitzeko kopurua idatzi.
  - **Gelakoen sudurrak eta belarriak aztertu:** denen artean gelan nolako belarriak eta sudurrak dauden begiratu. Handiak dira, txikiak dira? Badago antzekotasunik?
  - **Norberak bere burua marraztu:** ume bakoitzak, dagokion lekuan, bere buruaren marrazkia egin.
  - **Dakitenaz eta ikasteko dutenaz hitz egin:** orain arte zer ikasi duten galdetu, zer kostatu zaien gehien, zer gustatu zaien gehien. Zer ikasi nahi duten galdetu. Bakoitzak bere fitxan idatzi eta hezitzaileak arbelean.
  - **Gelako egunerokotasunaz hitz egin:** arazorik dagoen galdetu, nola sentitzen diren, lagunekin ondo portatzen diren eta besteak beraiekin ondo edo gaizki portatzen diren galdetu. Erantzunen arabera, hezitzaileak egoera bideratu.

#### Oharra

- Ez dago zertan egun bakar batean egin. Beharren arabera eta umeek ematen dioten garrantziaren arabera lanketa sakonagoa izan daiteke. Motzagoa ere bai; ez dago zertan den-dena egin.